

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3955

AGINDUA, 2020ko irailaren 23koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko behin-behineko langile bat kargutik kentzea xedatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 96.2 artikuluetan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargutik kentzea sinatzen dut:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Sabino Goitia Goyenechea jauna Kabineteari Laguntzeko aholkulariaren kargutik kentzea (kodea: 5295; dotazioa: 1) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.- Kargutik kentzeak 2020ko irailaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak. Kargutik kentzearen eguna betiere zerbitzuak emateko azken egunarekin bat etorriko da.

Hirugarrena.- Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 23a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI